# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 4296

*AGINDUA, 2013ko irailaren 25ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2013-2014 ikasturteari dagokion ikastetxeei buruzko informazioa eredu bateratuaren bidez biltzeko dena.*

Hezkuntza-plangintza eta kudeaketa arloetako beharrei erantzun ahal izateko eta estatistika ondorioetarako, unibertsitatez besteko irakaskuntzak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan 2013-2014 ikasturteari buruzko bateratutako informazioa bilduko da. Horretarako, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren eta Hezkuntza Sailburuordetzaren proposamenez, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan beren egoitzak dituzten unibertsitatez besteko ikastetxe guztiek, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren aplikazioak erabiliz, Eskola Jarduera, Ordutegiak, Espediente Akademikoa Notak eta Faltak (akta finalak) eta HPB-Hezkuntza Premia Berezia izenpean antolatu diren galdera zerrendei erantzun beharko diete eta bete zehaztasunez eta egiatasunez.

Bigarrena.– Ikasturtean zehar, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak zer galdeketa bete behar diren komunikatuko dio ikastetxe bakoitzari, eta epeak eta prozedura egokiak adieraziko du.

Hirugarrena.– Ikastetxeko zuzendariak gainbegiratu beharko du ereduak nola bete diren, izan ere, honek bermatzen baitu ematen den informazioaren egiazkotasuna. Galdesortak bete ondoren, ezarritako prozedurak eta epeak errespetatuz, aurkeztu behar dira, eta ondoren, behar denean, berrikusteari ekingo zaio.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, Hezkuntza sailburuordeari eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkariei esku ematen zaie, agindu honetan ezartzen dena garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 25a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.